

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 18a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Eguesibarko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (4. or.).
- II. Helburua (6. or.).
- III. Norainokoa (7. or.).
- IV. 2013ko kontu orokorrari buruzko iritzia (8. or.).
 - IV.1. Udalaren 2013ko ekitaldikokontuorokorra (8. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (8. or.).
 - IV.3. Udalaren 2013ko egoeraekonomiko-finantzarioa (8. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (11. or.).
- V. Udalaren 2013ko kontu orokorraren laburpena (12. or.).
 - V.1. 2013ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (12. or.).
 - V.2. 2013ko aurrekontu emaitza (13. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakina 2013ko abenduaren 31n (13. or.).
 - V.4. Udalaren egoera-balantze banakatua (14. or.).
 - V.5. Udalaren irabazien eta galeren kontua (15. or.).
- VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (16. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (16. or.).
 - VI.2. Langileak (16. or.).
 - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (18. or.).
 - VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (19. or.).
 - VI.5. Inbertsioak (20. or.).
 - VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (20. or.).
 - VI.7. Hirigintza (22. or.).
 - VI.8. Andacelay, S.L. sozietate publikoa (22. or.).
 - VI.9. Gestión y Promoción Egüés 21 SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II SL sozietate mistoak (23. or.).
- I. gehigarria: Andacelay, S.L. sozietate mistoaren 2013ko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua (24. or.).
- II. gehigarria: "Gestión y Promoción Egüés 21, S.A." sozietate mistoaren 2011ko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua, 2013ko ekitaldian hasi eta likidatu zen arte (25. or.).
- III. gehigarria: "Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L." sozietate mistoaren 2013ko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtuaren eta galeren eta irabazien kontu laburtuaren zirriborroa (26. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (27. or.).

Eguesibarko Udalak aurkeztu dituen alegazioei Kontuen Ganberak eman dien erantzuna (27. or.).

Eranskina. Udalaren oroitidazkia

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokortako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA


Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Eguesibarko Udalaren eta haren menpeko enteen 2013ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Eguesibarko Udalak 53,57 km² ditu; Altzuza, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Egues, Elkano, Elia, Ibiriku, Olatz eta Sagasetako kontzejuek, Etxalatz, Amokain, Erantsus, Elizmendi eta Egulbatiko jaurerriek eta Uztarroze, Gorraitz eta Sarrigurengo herriguneek osatzen dute.

2013ko urtarrilaren 1ean, 18.414 biztanle dauzka; horietatik, ehuneko 85, gutxi gorabehera, Sarrigurenen eta Gorraitzen bizi dira. 2006tik, udalerriak hirukoiztu egin du bere biztanle-kopurua.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2013ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Administrazio publikoaren arloa:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2013-12-31n
Udala	9.201.715	9.527.151	114

- Sozietate publikoak. 2004ko urrian, Udalak Andacelay, S.L. Udalaren hirigintza-sozietatea sortu zuen, bazkide bakarra Udala duela.

Sozietate horrek ehuneko 51eko partaidetza dauka "Gestión y Promociones Egüés 21-II, S.L." sozietate mistoan –2010ean sortua–.

Ondoren sozietatearen funtsezko datuak adierazten dira:

Enpresa publikoak	Diru-sarrerak	Gastuak	Langileak, 2013-12-31n	Ekitaldiko emaitzak	Epe luzeko zorra
Andacelay, S.L.	530.323	151.356	1	378.967	-
Gestión y Promoción Egüés 21-II S.L.(*)	2.235.788	2.145.250		90.538	4.000.529

(*) Kontuen zirriborroko datuak

Udalak parte hartzen zuen, halaber, "Gestión y Promoción Egüés 21, S.A." sozietatean –2005ean sortua–, bazkide pribatu berarekin eta "Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L." sozietatean zeukan partaidetza-portzentaje berarekin. Sozietate hori, ordea, 2013ko apirilaren 13an likidatu da, eratu zeneko xede soziala amaitu ondoren.

Sozietate hauek udaletxean dute egoitza soziala.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Udalak, 2013an, honako ekarpenak egin dizkio mankomunitate horri:

Zerbitzuak	2013ko ekarpenak
Eskualdeko hiri-garraioa	243.403
Ibai-parkearen kudeaketa	43.036
Guztira	286.439

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Merkataritza sozietate osoa	Mankomunitatea . Partzuergoa.	Zerbitzu-kontratuak	Errentamenduak	Merkataritza sozietate mistoak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X					
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X					
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	X					
Genero indarkeriaren prebentzioa				X		
Lehen eta bigarren hezkuntzarako hezkidetzak-programak				X		
Atezaintza	X					
Berdintasun zerbitzuak	X					
Tokiko enplegu eta garapen zerbitzuak	X					
Kirolak	X					
Kultura	X					
Musika eskola	X					
Hirigintza	X	X				X
Lorategiak	X			X		
Uraren ziklo integrala			X			
Hiri-hondakinak			X			
Garraio publikoa			X			
Haur hezkuntzako zentroaren zerbitzua, 0-3 urteko zikloa	X			X		
Udal eraikinen garbiketa eta mantentze-lanak				X		
Kale garbiketa	X					
Kirol instalazioen funtzionamendua				X		
Kirol instalazioetako taberna-jatetxearen kudeaketa					X	
Udal ludoteka	X			X		
Familia laguntzarako zentroa				X		
Hiriko udalekuaren kudeaketa	X			X		
Diru-bilketa exekutiboa	X			X		

Toki entitateari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995

Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Udalaren aurrekontua 2013ko ekainaren 20an onetsi zen. Kontuei dagokienez, Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko urriaren 2an onetsi zituen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2013ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarrenean, Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Informazio modura besterik ez bada ere, bi gehigarri erantsi ditugu, non Andacelay, S.L. ren eta Gestión y Promoción Egués 21, S.A. eta Gestión y Promoción Egués 21-II, S.L. sozietate mistoen 2013ko urteko kontuen laburpena ematen baitugu. Eranskin gisa, halaber, 2013ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia eman dugu.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legerekin eta Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Eguesibarko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Eguesibarko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz betiere.

- Eguesibarko Udalak 2013an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.
- Udalaren finantza-egoera 2013ko abenduaren 31n.
- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

III. NORAINOKOA

Eguesibarko Udalaren 2013ko ekitaldiari buruzko kontu orokorrak honako elementu nagusiak biltzen ditu:

- Erakundearen beraren kontua: Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaizta, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Andacelay, SL hirigintza sozietatearen urteko kontuak.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu-hartzaitzaren txostena eta Udalaren eta Andacelay, S.L. hirigintza-sozietatearen banakako kontuak.

Zorren egoeran ez dira aipatzen udal-sozietateen kreditu-operazioak.

Sozietate mistoen egoera-balantzearen eta galeren eta irabazien kontuaren zirriborro bat informazio osagarri gisa gehitzen dira Udalaren kontu orokorrari buruzko espedientean.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalerako, aurrekontuen eta finantzen egoera-orriak berrikusi dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedurak ere, eta antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako oinarritzko alderdiak ere aztertu dira.

Andacelay, S.L. sozietatearen 2013ko urteko kontuak direla eta, kanpoko auditoreek auditoria finantzarioko txostena egin dute. Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. sozietatearen 2012ko eta 2013ko urteko kontuak, ordea, formalizatu eta auditatu gabe zeuden txosten hau idazteko garaian. Andacelay, S.L. hirigintza-sozietatearen egoera-balantzeari buruzko txostena eta galeren eta irabazien kontua erantsi ditugu, bai eta Gestión y Promoción Egüés 21 II, S.L. ren balantze-egoeraren eta galeren eta irabazien kontuaren zirriborro bat ere. Gainera, Gestión y Promoción Egüés 21, S.A. sozietate mistoaren 2012ko eta 2013ko ekitaldietako urteko kontuak erantsi ditugu, 2013ko apirilaren 25eko likidaziora artekoak.

2011n, ikerketa batzorde bat sortu zen azken urteetan bai Udalak, bai haren sozietate publikoek egin dituzten kontratazio- eta kudeaketa-prozedura batzuk direla eta. Batzorde horren ondorioak Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zituen 2012ko maiatzean, eta ondorio horiek Agoizko Epaitegiari, fiskaltzari eta Foru Ogasunari helarazi zitzaizkien, jarduketa horietatik erator litezkeen erantzukizunak erabaki zitzaizkien.

2014ko ekainaren 26an, Kontuen Ganberak "Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen kudeaketa (2004-2013)" izenburuko txostena argitaratu zuen. Parlamentuak eskatuta egin zuen txostena. Hartan, agerian jarri zen erantzukizun juridikoen mota desberdinak daudela, Udalak egindako hirigintza-kudeaketaren ondoriozkoak.

IV. 2013ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoari zegokion bezala, Eguesibarko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea eta kontuaren beraren edukia Udalaren ardura dira. Kontuaren laburpen-txosten honen V. atalean jaso da.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALAREN 2013ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Zalantza batzuk badaude ikerketa batzorde horrek aurrera eraman dituen jarduketak direla-eta Udalak nozi litzakeen ondorio ekonomikoei buruz eta Kontuen Ganberaren txostenari buruz.

Aurreko lerrokadan aipatutako zalantza horiek zertan bukatzen diren ezagututa doikuntzaren bat egin beharra izanez gero, doikuntza horrek zer eragin izanen duen kanpoan utzita, Udalaren 2013ko ekitaldiari dagokion kontu orokorrak zehazki jasotzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta egindako eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Egindako lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun-printzipioari jarraituz garatu dela. Hala eta guztiz ere, nabarmendu nahi dugu Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. sozietateak ez dituela kontuak onetsi. Halaber, nabarmendu beharra dago Nafarroako Kontuen Ganberak 2014ko ekainaren 26ko txostenean adierazitakoa.

IV.3. UDALAREN 2013ko EGOERA EKONOMIKO-FINANZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontuak 9,1 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko horiek ehuneko 4 handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 9,5 milioi eurokoak dira.

Aldaketak langileen gastuen, inbertsio errealen eta nagusiki ondasun arrunten eta zerbitzuen kontusail batzuk handitzeko egindako kreditu bereziei, kreditu-transferentziei eta kreditu-osagarriei dagozkie.

Aitortutako betebeharrak 9,2 milioi euro egiten dute, eta haien betetze orokorra ehuneko 97koa da. Kapitulu guztiak nahiko homogeenak dira betetzeari dagokionez.

Aitortutako eskubideek 9,5 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila % 100ekoa izan da. Diru-sarreraren kapitulu guztiak ehuneko 100eko edo gehiagoko betetzeak ageri dituzte; nabarmentzekoa da zeharkako zergen kapitulu izandako betetzea, ehuneko 164koa, zeina zor izan baitzaio eraikuntzen eta obren gaineko zergetan aurreikusitakoa baino diru-bilketa handiagoa gertatu izateari.

Gastuen izaerari begiraturaz gero, gastu arruntek eta kapital-gastuek gastu guztien ehuneko 97 eta ehuneko 3 egiten dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 99 dira; diru-sarreraren ehuneko 42, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 41 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 1 kapital-transferentzietatik).

Taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren gastuko 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantza iturria	Kopurua
Langileak	48	Tributu bidezko diru-sarrerak	55
Bestelako gastu arruntak	49	Transferentziak	42
Kapitaleko gastuak	3	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	3
	100		100

Hona Udalaren 2013rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2012tik izan duen bilakaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2012	2013	Aldea, portzentajea 2013/2012
Aitortutako betebeharrak, guztira	8.571.403	9.201.715	7
Likidatutako eskubideak, guztira	7.808.597	9.527.151	22
Gastu-betetzearen ehunekoa	95	97	
Diru-sarreraren betetzearen ehunekoa	82	100	
Ordainketen ehunekoa	89	91	
Kobrانتzen ehunekoa	93	94	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	8.119.680	8.886.133	9
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	8.119.542	8.882.232	9
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	451.723	315.582	-30
Finantza eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	0	0	
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	7.676.529	9.425.062	23
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	4.394.048	5.246.440	19
Kapitalaren eta Finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak (6. kapitulutik 9.era)	132.068	102.089	-30
Diru-laguntzen menpekotasunaren ehunekoa	43	42	
Zerga bidezko diru-sarrerek gastu arruntetan egiten duten portzentajea	54	59	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-762.806	291.702	138
Aurrekontu-emaizta doitua	-100.367	325.436	424
Aurrezki gordina	-443.151	542.830	222
Finantza-zama (3.etik 9.era)	0	3.901	100
Aurrezki garbia	-443.151	538.929	221
Zorpetze-mailaren ehunekoa	0	0	
Zorpetzearen mugaren ehunekoa	-5,77	5,72	
Zorpetze-ahalmenaren ehunekoa	-5,77	5,68	
Diruzaintza-gerakina, guztira	668.178	988.518	48
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	668.178	988.518	48
Udalaren zor bizia	0	0	

2013an, Udalak ehuneko 7 gehiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 22 handiagoak izan ditu. Aitortutako betebeharren igoera sortu da, funtsean, langile-gastuek 558.000 eroan gora egin dutelako.

Diru-sarrerei dagokienez igoera handiagoa izan da, zeren eta diru-sarrerek nabarmen egin baitute gora ia kapitulu guztietan; garrantzitsuenak zuzeneko zergenak izan dira, 574.000 euroekin, eta transferentzia arruntenak, 673.000 euroekin.

Izaera arrunteko gastuek ehuneko 9 egin dute gora, funtsean langile-gastuen kapituluak gora egin duelako; diru-sarrera arrunten kapituluak, berriz, ehuneko 23 egin du gora. Igoera hori zor zaio, batez ere, zuzeneko zergen diru-bilketan izan den igoerari, bai eta transferentzia arrunten kapituluari ere.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa 292.000 euro positiboa da; 2012an, ordea, negatiboa izan zen, 762.000 euro negatiboa hain zuzen. Saldo horrek erakusten digu ezen, 2012ko ekitaldian ez bezala, diru-sarrera ez-finantzarioak nahikoak izan direla izaera bereko gastuak ordaintzeko.

2013ko ekitaldia ixtean, aurrekontuko emaitza bateratu dituzte 325.000 euroko superabita erakutsi du. 2012an, emaitza horretan, 100.000 euroko defizita ageri zen.

Bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak nabarmen egin dute hobera 2012koekin alderatuta, eta positiboak dira biak 2013ko ekitaldi honetan.

Diruzaintzako gerakina 1 milioi eurokoa da guztira (2012an 700.000 eurokoa izan zen). Bi urte horietan gerakin guztia gastu orokorretarako erabili izan da.

Efektiboaren zenbatekoak eta Udalaren beste aktibo likido batzuek 1,7 milioi euro egiten zuten 2013ko abenduaren 31n; horri Andacelay, S.L. udal sozietatearen 2,7 milioi euroko kopurua gehituta, guztira 4,4 milioi euro dira (4,6 milioi euro 2012an).

2013ko abenduaren 31n, Udalak ez zuen zorrik.

Azken urteetan, biztanleria handitzeak berarekin ekarri du zuzeneko zergen eta tasen bilketa handitzea, bai eta toki ogasunen funtsetik heldutako transferentzia arruntak ere.

Diru-sarreraren eta gastu arruntaren artean azken ekitaldietan egon den desoreka hirigintza-jarduketetatik heldutako diru-sarrerekin konpentsatzen zen. 2013ko ekitaldia lehenengoa da non, hirigintzako diru-sarrera adierazgarriak falta izanda, diru-sarrera arruntak nahikoak izan diren gastu arruntak finantzatzeko; ekitaldiaren amaieran, aurrekontu-emaitza positiboa izan da, eta diruzaintza-gerakinak gora egin du aurreko ekitaldikoarekin alderatuta.

Laburtuz, bada, Udalaren finantza-egoeraren ezaugarria da diruzaintza-gerakin positiboa daukala, aurreko ekitaldietako hirigintza-jarduerak sortua funtsean. Krisi ekonomikoko egoera nabarmen hondatzen ari zen Udalaren magnitude finantzarioak, eta horrek berarekin ekarri zuen diru-sarrera arruntak nahikoak ez izatea ematen ziren zerbitzuen funtzionamendu gastuak finantzatzeko. 2013ko ekitaldi honetan, diru-sarrera arruntek nabarmen gora egin izanak andeatze-egoera horri buelta emateko balio izan du, eta aurrekontu-emaitza positiboetara itzuli gara, diruzaintza-gerakina hobetuta.

2013an aurrezki gordin positiboa lortuta izan zen aldaketaren ondoren, eta zorpetzerik izan ez denez, badirudi joera-aldaketa bat gertatu dela Udalaren egoera ekonomikoan.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den kalkulatu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean horretarako eman duen gidaz baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	291.702
Doikuntzak	54.235
Finantzatzeko ahalmena	345.937

Eguesibarko Udalak aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak betetzen ditu, bai eta gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2012koa gehi ehuneko 1,7); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta ez baitu zorrik.

Fiskalizazioaren iritzia ezertan ukitu gabe, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu egungo krisi ekonomikoko arriskuen ondorioz dagoen egoera, egoera horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruz emandako txostenari dagokionez:

1. Honako gomendio garrantzitsuak ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Dokumentazioa kudeatzeko eta artxibatzeko prozedura eraginkorrak ezartzea, eta dokumentazio osoa artxibatzeko artxibo orokor bat sortzeko aukera aztertzea.*

- *Administrazioko alor bakoitzeko arduradunek, espedienteak eta egin beharreko jarduerak direla-eta araudi indardunak eskatzen duen dokumentazioa behar bezala betetzen dela ikuskatzea.*

2. Oraindik betetzeko daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:

- *Urtez urte Udalaren aurrekontu orokor bakarra onartzea, indarreko legedian aurreikusitako epearen barruan, Udalaren kudeaketarako tresna eraginkorra izan dadin.*

- *Kontu orokorra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan onartzea.*

- *Udalerriak bizi izan duen populazio-igoera dela-eta, gaur egungo zerbitzuak ematearen ondorioz nahiz inbertsio berrien ondorioz alde horrek izanen duen eragina balioestea.*

- *Prozedura berriak hastea iraupenak kontratazio araudian ezarritako muga gainditzen duenean.*

- *Udal zerbitzuak eskaintzeko hain garrantzitsuak diren obren plangintza eta kudeaketa Udalak berak egin, kontrolatu eta finantzatu behar ditu, gure iritzian.*

V. UDALAREN 2013ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren azaltzen dira 2013ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

V.1. 2013ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langile-gastuak	4.234.969	237.697,00	4.472.666	4.448.703	99	4.368.204	80.499	2
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.645.757	202.150	3.847.907	3.697.993	96	3.282.570	415.423	11
3. Interesak	0	4.000	4.000	3.901	98	3.901	0	0
4. Transferentzia arruntak	743.988	74.253	818.241	735.536	90	566.952	168.584	23
6. Inbertsio errealak	503.564	(169.300)	334.264	305.582	91	169.093	136.489	45
7. Kapital-transferentziak	3.000	7.000	10.000	10.000	100	3.000	7.000	70
Guztira	9.131.278	355.800	9.487.078	9.201.715	97	8.393.720	807.995	9

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	3.295.110	0	3.295.110	3.503.404	106	3.239.718	263.686	8
2. Zeharkako zergak	125.000	40.000	165.000	270.486	164	195.729	74.757	28
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.334.971	20.000	1.354.971	1.472.550	109	1.294.746	177.804	12
4. Transferentzia arruntak	3.608.896	295.800	3.904.696	3.914.883	100	3.848.353	66.530	2
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	260.781	0	260.781	263.739	101	235.879	27.860	11
6. Inbertsio errealen besterentzea	3.500	0	3.500	3.500	100	3.500	0	0
7. Kapital-transferentziak	53.020	0	53.020	64.855	122	64.855	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	33.734	100	33.734	0	0
9. Finantza-pasiboak	450.000	0	450.000	0	0	0	0	0
Guztira	9.131.278	355.800	9.487.078	9.527.151	100	8.916.514	610.637	6

V.2. 2013ko AURREKONTU EMAITZA

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	7.808.597	9.527.151
- Aitortutako betebeharrak	8.571.403	9.201.715
= Aurrekontu-emaiza	-762.806	325.436
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-	-
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	-	-
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	662.439	-
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	-	-
= Aurrekontu-emaiza doitua	-100.367	325.436

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINA 2013ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	786.896	747.159
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	566.459	629.327
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.245.214	1.273.080
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	157.210	50.171
+ Ordainketen itzulketak	2.439	-
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-6.104	-1.727
- Bilketa zaileko eskubideak	-1.178.322	-1.203.692
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	-1.320.183	-1.444.721
- Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-957.779	-807.995
- Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-58.380	-38.454
- Diru-sarreraren itzulketak	-66.745	-18.782
+ Aplikatzeko dauden gastuak	1.272	132
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	-238.551	-579.622
+ Diruzaintzako funts likidoak	1.201.465	1.686.080
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	-	-
= Diruzaintza-gerakina, guztira	668.178	988.518
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	-	-
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	-	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	668.178	988.518

V.4. UDALAREN EGOERA-BALANTZE BANAKATUA

Jardunean

Deskribapena	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
A Ibilgetua	63.139.929	62.978.975
1 Ibilgetu materiala	46.632.887	46.383.808
2 Ibilgetu ez-materiala	488.090	488.427
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	15.981.351	16.069.139
4 Herri-ondasunak	-	-
5 Finantza-ibilgetua	37.601	37.601
C Zirkulatzaila	3.174.060	3.638.791
7 Izakinak	-	-
8 Zordunak	1.971.323	1.952.578
9 Finantza-kontuak	1.202.737	1.686.213
Aktiboa, guztira	66.313.989	66.617.766

Pasiboa

Deskribapena	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
A Ondare garbia	64.986.430	65.171.185
1 Ondarea eta erresebak	60.453.129	59.199.362
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	(983.130)	390.538
3 Kapitaleko diru-laguntzak	5.516.431	5.581.285
C Epe luzeko hartzekodunak	-	-
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	-	-
D Epe laburreko hartzekodunak	1.327.560	1.446.581
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.321.455	1.444.853
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	6.104	1.728
Pasiboa, guztira	66.313.989	66.617.766

V.5. UDALAREN IRABAZIEN ETA GALEREN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2012ko kopurua	Zenbatekoa, 2013an	Deskribapena	2012ko kopurua	Zenbatekoa, 2013an
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Bukaerako izakinak	-	-
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	721.609	725.322
61 Langileria-gastuak	3.965.656	4.549.156	71 Jabetzaren eta enpresaren errenta	519.710	795.968
62 Gastu finantzarioak	138	3.901	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.437.625	2.885.201
63 Tributuak	11	323	73 Zerga arruntak, errentaren eta ondasunaren gainekoak	525.250	583.371
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo-zerbitzuak	3.510.874	3.597.218	75. Ustiapeneko diru-laguntzak	-	-
65 Gizarte prestazioak	-	-	76 Transferentzia arruntak	3.241.973	3.914.883
66. Ustiapeneko diru-laguntzak	-	-	77 Kapitalaren gaineko zergak	180.490	305.317
67 Transferentzia arruntak	690.415	735.536	78 Bestelako diru-sarrerak	50.472	248.734
68 Kapital-transferentziak	23.582	10.000	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	-	-
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	-	-			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	-	562.662	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	513.547	-
Guztira	8.190.676	9.458.796	Guztira	8.190.676	9.458.796

Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2012ko kopurua	Zenbatekoa, 2013an	Deskribapena	2012ko kopurua	Zenbatekoa, 2013an
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	513.547	-	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	-	562.662
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	142.929	148.907	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	326.654	23.217	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	-	-
89 Etekin garbia guztira (saldo hartzekoduna)	-	390.538	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	983.130	-
Guztira	983.130	562.662	Guztira	983.130	562.662

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2013ko ekitaldirako aurrekontuari 2013ko ekainaren 20ko osoko bilkuran eman zion Udalak behin-behineko onespena, eta 2013ko abuztuaren 29an hartu zuen indarra, behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean. Onespen hori, beraz, araudi indardunearan ezarritako epeaz kanpo eman da.

Udalaren kontu orokorra 2013ko urriaren 2ko Osoko Bilkuran onetsi zen; arau indardunak ezarritako epeaz kanpo, horrenbestez.

"Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L." sozietatearen kontuak formulatu gabe zeuden –eta, horrenbestez, auditatu gabe– kontu orokorra onesteko datan; hori dela eta, kontu orokorrean, informazio osagarri gisa, sozietate misto horren 2013ko abenduaren 31ko egoera-balantzearen eta galeren eta irabazien kontuaren zirriborro bat erantsi da.

Ez da aurkitu 2013ko fakturarik 2014ko aurrekontuari egotzi zaionik.

Hornitzaileei egindako ordainketen lagin baten azterketa egin ondoren, ondorioztatzen da Udalak bete dituela hornitzaileei ordaintzeko epeak, Merkataritza-eragiketen Berankortasuna Eragozteko Neurriei buruzko 15/2010 Legean ezarritakoak.

Gabeziak detektatu dira zenbait espedienteren dokumentazioaren gaineko kontrolari, kudeaketari eta artxibatzeari dagokienez, eta horrek zaildu egin du dokumentazio jakin bat egiaztatzea. Gabezia hori 2013ko ekitaldiari buruzko dokumentazioari dagokio; izan ere, 2014an, dokumentazioaren kontrola hobetzeko sistemak ezartzen ari dira.

Hona gure gomendioak:

- *Urtez urte Udalaren aurrekontu orokor bakarra onartzea, indarreko legedian aurreikusitako epearen barruan, Udalaren kudeaketarako tresna eraginkorra izan dadin.*
- *Udalaren kontu orokorra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan eta dokumentazioarekin onestea.*
- *Zorren egoera-orrian aurkeztea Udalaren partaidetza duten merkataritza-sozietateei buruzko informazioa.*
- *Dokumentazioa kudeatzeko eta artxibatzeko prozedura eraginkorren garapena amaitzea, eta dokumentazio osoa artxibatzeko artxibo orokor bat sortzeko aukera aztertzea.*
- *Administrazioko alor bakoitzeko arduradunek, espedienteak eta egin beharreko jarduerak direla-eta araudi indardunak eskatzen duen dokumentazioa behar bezala betetzen dela ikuskatzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen atalaren gastuak 4,4 milioi euro egiten du; hau da, 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 48 eta gastu arrunten ehuneko 50.

2012ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 15 handitu da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%), 2013/2012
	2012	2013	
Goi-karguak	50.419	49.489	-2
Funtzionarioak	950.087	1.259.339	33
Lan-kontratadun finkoak	396.056	357.354	-10
Aldi baterako lan-kontratadunak	1.177.934	1.445.826	23
Gizarte-zamak	1.285.851	1.336.695	4
1. kapitulu, guztira	3.860.347	4.448.703	15

Funtzionarioen eta lan-kontratupeko langile finkoen gastuak gora egin du 2012ko ekitaldikoaren aldean, zeren eta, 20/2012 Errege Lege-dekretuan ezarritakoari jarraituz, Udalak ez baitzien langileei ordaindu 2012ko ekitaldiko abenduko aparteko soldata; halere, 2013ko ekitaldian, Udalak, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean, kontzeptu horrengatik ordainketa-betebehar bat aitortu zuen, eta langileei, 2013ko urtarrilean, kobratu gabeko aparteko soldataren zenbatekoa egiten zuen kopuru bat ordaindu zien.

Foru lege horrek, bere artikulua bakarrean, xedatzen du 2012an Nafarroako administrazio publikoan zerbitzuko langileei osagarri pertsonal bat ordainduko zaiela, erosteko ahalmenaren galera dela-eta, 2012ko ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.

28/2012 Foru Legeak 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAO-n argitaratu eta biharamu-nean, eta horrek zalantzak planteatu izan ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliozkotasunari buruz. Hori dela eta, "2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko", Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordaineko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu da, Konstituzio Auzitegiak onetsia; izan ere, auzitegi horrek haren aplikazioa bertan behera utzi zuen 2013ko irailaren 14an.

Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekurtsioak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judizial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egon behar dela.

Aldi baterako langileen gastuak gora egin du nabarmen, zeren eta gizarteratze errentak kobratzen zituzten 254 pertsona kontratatu baitira, eta gizarte enplegu babesteko programa handitu baita. Horrek, guztira, 220.000 euroko gastu-gehikuntza ekarri du, gutxi gorabehera.

Langile funtzionarioen eta lan-kontratupeko langile finkoen gastuan aurkitzen den aldea heldu da Udaleko 15 lan-kontratupeko langile finko atxikitzeak Nafarroako Gobernuak, maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legearen onespeneraren bidez, irekitako funtzionariatzeko prozesuari. 15 langile horiek funtzionario izaera hartu zuten, eragin guztietarako, 2013ko ekainaren 30etik.

2014ko ekainaren 26an, Konstituzio Auzitegiak balio gabetzat jo du prozesu hori arautzen zuen 19/2013 Foru Legea. Horrenbestez, Udala, gaur egun, Toki Administrazioako Departamentuaren jakinarazpen baten zain dago, hain zuzen ere egoera hori erregularizatzeari ekiteko.

2013ko plantilla organikoari 2013ko azaroaren 7an eman zitzaion behin betiko onespenera. Plantillak, guztira, 101 lanpostu dauzka. 2012ko abenduaren 31n, 59 lanpostu daude hutsik, guztira; horietatik gehienak administrazio-kontratuak duten langileekin bete dira.

Langileen egoera, 2013ko abenduaren 31n, honakoa da:

	Funtzionarioak	Lan-kontratudun finkoak	Behin-behinekoak	Kontratu administrazioa dutenak	Lan kontratupeko langileak	Guztira
Zerbitzu orokorrak	5			4		9
Hirigintza	3			1		4
Askotariko zerbitzuak	3			7	1	11
Polizia	18		1	3		22
Lorezaintza eta ingurumena	4			4		8
Ekonomiko finantzarioak	2			1		3
Gizarte zerbitzuak	3			13		16
Musika eskola	6			13		19
Kultura		1		5		6
Kirolak	1					1
Gizarte enplegu babestua					14	14
Eszedentzia*	2					2
Guztira	47	1	1	51	14	114

*Eszedentziak 2 poliziarik dagozkie.

2013an, langile funtzionarioen edo lan-kontratupeko langile finkorik kontratatze inongo prozedurarik ez da izan Udalean. Aldi baterako langileak kontratatze aurrera eramanez diren prozeduren artean, honakoak aztertu ditugu:

- Amatasun baja batean eta geroko oporraldietan ordezkapenak egiteko kultura koordinatzaile bat kontratatzekeo deialdia.
- Arriskuko haurdunaldia duen langile bat ordezteko gizarte hezitzaile bat kontratatzekeo deialdia.

Espediente horiek aztertuta, akatsak antzeman dira dokumentazioaren kontrolean eta artxiboan, eta, gainera, espedienteetan ezin izan dugu egiaztatu kontratazioa buruzko legediak eskatzen dituen zenbait dokumentu badauden esate baterako, organo eskudunak deialdia onetsi izatea eta epaimahai kalifikatzailearen akta batzuk.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetako lanposturako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla ondorioztatzen da, oro har; halere, honako akatsak aurkitu ditugu:

- 2013an indarra duen hitzarmen kolektiboak jai-eguntzat jotzen du larunbataren 00:00etatik igande edo jai-egunaren ondorengo egunaren 07:30era lan egindako aldia. Jai eguntzat-hartze hori luzeagoa da Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritakoa baino. 2014ko ekainean onetsitako hitzarmen kolektibo berriak, jai-egunak direla-eta, aurreko hitzarmeneko arauari eusten dio.
- Udalak bajen ondorioz (istripu, gaixotasun eta amatasun kasutan), gertatzen diren langileen ez-ertortzeen gaineko kontrola egiten du, baina ez du sistematizatu bestelako arrazoiengatik bajen gaineko kontrola (senideen gaixotasuna, berreskuratzeko baimenak...).

Hona gure gomendioak:

- *Kontratazioari buruzko araudiak eskatzen dituen agiri eta izapide guztiak osatzea.*
- *Tresna bat ezartzea kasu guztiak hartuko dituen eta langileen kontrola erraztuko duena, baimen, baja, ordutegi eta abarreko ei dagokienez.*
- *Hitzarmen kolektiboa egokitzea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileriaren estatutuan ezarritakoaren arabera.*
- *Indarrean den araudiaren testuinguruan, aurrekontu-zuzkidura duten bete gabeko lanpostu guztiak enplegu-eskaintza publikoan sartzea.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 3,7 milioi euro egin dute 2013ko ekitaldian; guztira, ekitaldiko gastuen ehuneko 40 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 42 egiten dute. 2012. urtearen aldean, ehuneko 4 egin dute gora.

Gora egite hori zor zaio, funtsean, 2013ko ekitaldian 145.198 euroko gastua kontabilizatu izateari. Kopuru hori heldu da haur-eskolaren erabilerrako ikasgela batzuk alokatu izateari, 2010-2011 ikasturtean. Gastu hori, hasiera batean, Andacelay, S.L. sozietate publikoak jasan zuen, harik eta 2013ko ekitaldian Udalak berak fakturatu duen arte.

Kapitulu honen guztizko gastuak egonkortasun handia ageri du, zeren eta haurtzaindegien kudeaketaren, familientzako arreta-zentroaren eta erregularizazio fiskaleko planaren gastuen gorakada konpentsatu baita beste kontusail batzuetan izandako aurrezkiekin: lorategien mantentzea, kirol jardueren kudeaketa eta argiteria publikoaren mantentzea.

2013ko ekitaldian, Udalak ez du hornidurak, zerbitzuak edo laguntza kontratatzekeo inongo prozedurarik gauzatu, haien gastua 2013ko ekitaldiari egotzita. Udal egoitzak garbitzekeo, bide segurtasunek obrak egitekeo eta isunak kudeatzeko eta berdeguneak mantentzekeo prozedurak hasi dira, baina haien esleipena 2014ko ekitaldian gauzatu da.

Azterketatik eta kontratu indardunen gainean edo/eta 2013an amaitutakoen gainean egindakotik ondorioztatzen da Udalak nahiko ongi betetzen duela kontratazioaren alorrean aplikatzeko den araudia, honako salbuespen hauekin:

- Zerbitzuen prestazio batzuek 2013an izan duten gastu-bolumenari eutsiz gero, beharrezkoa izanen litzateke zenbatekoari egokitutako kontratazio-prozedura bat izapidetzea.

Hona gure gomendioak:

Urteko gastuaren bolumena alde aurretik balioets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espedienteak izapidetzea.

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arruntengatiko gastuek 0,7 milioi egin dute, eta 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 8 dira.

Kapital-transferentzien gastuek 2013an 10.000 euro egiten dute, eta 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 0,11 izan dira. 2012an, izaera horretako gastuak 20.000 euro egin zuen.

Honakoa da transferentzia arruntengatiko 2012ko eta 2013ko gastuak alderatzeko taula, artikuluz artikulukoa:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%), 2013/2012
	2012	2013	
Foru Komunitateari	22.655	31.602	39
Toki entitateei	305.285	305.691	0
Kirol klub eta elkarteei	152.568	106.257	-30
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	209.906	291.986	39
Transferentzia arruntak	690.415	735.536	7

2012koen aldean, gastu horiek ehuneko 7 egin dute gora, funtsean oinarrizko gizarte zerbitzuen aparteko laguntzek 73.000 euro gora egin dutelako; horrek konpentsatu egin du gainerako kontusailetan egon den beherakada orokorra, batez ere kirol-klub eta -elkarteeikiko hitzarmenena, 46.000 eurokoa.

Toki entitateentzako diru-laguntzen barruan, Udaleko kontzejuen jaiak finantzatzera bideratutako 57.000 euro egotzi dira (2012an, 65.000 izan ziren), bai eta eskualdeko garraioa finantzatzeko 243.000 euro ere (237.000 euro 2012an).

Honako hauek dira 2013an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Kontzeptua	Kopurua
Oinarrizko gizarte-zerbitzuarentzako laguntzak	160.164
Kontzejuei jaiak antolatzeko emandako laguntzak	56.566
Lankidetzeta proiektuak	49.373
Udalaren kirol eskoletarako diru-laguntza	34.269
Guztira	300.372

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da Udalak indarrean dagoen araudia behar bezala bete duela.

Udalak ez du ez Ordenantza Orokorrik ez diru-laguntzen Plan estrategikorik; edonola ere, diru-laguntzak ordenantza berezien bitartez arautzen ditu.

Hona gure gomendioak:

- *Diru-laguntzen plan estrategiko bat egitea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak, baliabideen aurreikuspena, eragina eta abar.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.*

VI.5. INBERTSIOAK

2013. urterako aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (334.000 euro) ehuneko 91 bete da, eta 306.000 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldirako aitortutako betebeharrak guztien ehuneko hiru.

2012rekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 29 –hau da, 127.000 euro– egin dute behera. Egindako obren bolumena 2012ko ekitaldikoaren antzekoa izan da: erabilera publikoko azpiegituretan inbertsioak egiteko behar handiagoa (kontzejuetako obrak, funtsean) egon da, eta zerbitzuen funtzionamenduari lotutako inbertsioen bolumena txikiagoa izan da. 2012aren aldean gertatu den beherakada zor izan zaio 2012ko ekitaldian Udalak eskobatze-makina bat erosi izanari zerbitzu anitzetako arlorako; 163.000 euroko kostua izan zuen.

Honakoak dira 2013an egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Kopurua
Kontzejuetako urbanizazioan egindako lan txikiak	53.427
Landa bideetako obrak	46.975
Aurrekontu parte-hartzaileen kontusaila	37.408
Haur eskolak egokitzeko obrak	29.928
III. eskola ikastetxeko patioa estaltzea	26.902
Guztira	194.640

2013ko ekitaldiko obrek ez dute aipatzeko moduko zenbatekorik izan. Horietan guztietan, Udalak zenbait enpresa gonbidatu ditu beren proposamenak aurkezteko, eskaintzarik aldekoena hautatzeko.

2013an amaitutako obren exekuzioa aztertuta, ondorioztatzen da Udalak nahiko ongi betetzen duela kontratazioaren alorrean aplikatzeko den araudia.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2013ko ekitaldian aitortutako eskubideak 9,5 milioioak izan dira; ehuneko 99 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerei dagozkie eta ehuneko 1, berriz, kapital-eragiketeki.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (5,2 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (3,9 milioi eurokoak) nabarmen dira. Kapital-eragiketetan, kapital-transferentziak dira azpimarratzekoak (65.000 euro).

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 100ekoa izan da. Kapitulu guztiek ehuneko 100etik gorako betebeharrak dauzkate; betetze handienak, ordea, zergen bidezko diru-sarreraren kapituluak dira.

2013ko ekitaldian, 226.000 euroko zenbateko bat erregistratu da, Andacelay, S.L. hirigintza sozietatetik erreserben kargura jasotako dibidendu bati dagokiona. 2012an, hirigintza-sozietate horrek ez zuen dibidendurik banatu.

2012. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 22 egin dute gora. Hona xehakatzeari:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%), 2012/2011
	2012	2013	
1. Zuzeneko zergak	2.929.816	3.503.404	20
2. Zeharkako zergak	213.549	270.486	27
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.250.683	1.472.550	18
4. Transferentzia arruntak	3.241.973	3.914.883	21
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	40.508	263.739	551
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	7.676.529	9.425.062	23
6. Inbertsioen besterentzea	20.000	3.500	-82
7. Kapital-transferentziak	112.068	64.855	-42
8. Finantza-aktiboen aldea	-	33.734	100
Kapital-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6. kapitulutik 9.era)	132.068	102.089	-23
Diru-sarrerak, guztira	7.808.597	9.527.151	22

2013an, azpimarratzekoa da diru-sarreraren kapitulu guztiek nabarmen egin dutela gora; azpimarratzekoak dira zuzeneko zergetan izan den igoera, 574.000 eurokoa, eta transferentzia

arruntetan izandakoa 673.000 eurokoa. Azken kasu horretan, igoera zor zaio Toki Ogasunen Funtsetik jasotako 500.000 euroko transferentziari. Ikusten da, halaber, zeharkako zergen diru-bilketak gora egin duela; dena den, haren zenbateko txikia adierazten du ibarrean gaur egun hirigintza-jarduera txikia dela.

Ondoko taulan ikusten da diru-sarrera arrunt hauek eta EIOZek azkeneko urte hauetan izan duten bilakaera:

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Diru-sarrera arruntak, EIOZa kenduta	4.667.101	5.273.431	6.112.411	7.004.240	7.194.240	7.462.980	9.154.576
EIOZa	4.622.638	1.269.407	1.063.717	1.631.306	808.142	213.549	270.486
Diru-sarrera arruntak	9.289.739	6.542.838	7.176.128	8.635.546	8.002.382	7.676.529	9.425.062

Kapital-eragiketek hondarrezko garrantzia dute diru-sarreraren guztizkoan, zeren eta inbertsiorik ez dagoenez, ia ez baita kapitaleko diru-laguntzarik jasotzen

Ondorengo taulan, udal zerga bakoitzaren arabera aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%), 2013/2012
	2012	2013	
Lurraren gaineko kontribuzioa	1.947.876	2.304.006	18
Ibilgailuak	525.143	583.371	11
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	180.490	305.319	69
JEZa	276.307	310.708	12
EIOZa	213.549	270.486	27
Guztira	3.143.365	3.773.890	20

Alderik nabarmenena ikusten da lurraren gaineko kontribuzioan gertatu den igoeran, kontzeptu hori dela-eta zergak ordaintzen dituzten eraikinen kopuruak gora egin duelako eta 2012an indarra hartu zuen balorazio-ponentziaren katastro-balioak hiru urtetan mailaz maila efektibo egiten ari direlako. Halaber, nabarmen egin dute gora lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zergak, Erripagañako sektorean etxebizitzaren beste entrega baten ondorioz eta sektore horretako jabeen arteko lursailen salerosketa-eragiketa batzuen ondorioz.

Udalak 2012ko ekitaldian aplikatutako tasak, EIOZari dagozkionak salbu, Toki Ogasunei buruzko 2/2013 Foru Legeak agintzen dituen tasa beheerenerako tartean daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,1575	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,1 eta 2,8 bitarte	2 eta 3,8 bitarte
Zerga-tasa	12	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4,5 eta 4,8 bitarte	2 - 5

Tasa hauetan ez da alderik izan 2009tik.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusail lagin bati azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

VI.7. HIRIGINTZA

Udalaren hirigintza-zerbitzua honakoek osatzen dute: bi udal arkitekto, aparejadore bat eta administrari bat.

Eguesibarko Udal Plana 2000. urtean onartu zen behin-betiko, eta kontzejuen beste zenbait planeamendu-tresna ere badaude aldi berean.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Eguesibarko Udalaren plan orokorra berraztertzeko prozedura 2006an abiarazi zen. 2011ko maiatzaren 16an, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren erabakiz, behin betiko onespena ematen zaio Eguesibarko Udalaren Plan Orokorrari –ibar osorako bakarra–, baina hiru hilabeteren buruan Erabaki horretan zehazten diren zehaztapen guztiak jasoko dituen testu bateratu bat aurkezteko exijitzen da. Nafarroako Gobernuaren erabaki horren kontra errekurtsioa jarri du herritar-elkarte batek.

Gero, Nafarroako Gobernuak baliorik gabe utzi zuen, urriaren 19ko erabakiz, planeamendu berriaren behin betiko onarpena, aurreikusten den egoitzen emendioa –21.435 etxebizitza– justifikatu gabe dagoela argudiatuz, besteren artean. Erabaki horrekin, plan horren behin-behineko onarpen-fasera atzeratu ziren berriro jarduerak. Gaur egun, Udala aztertzen ari da erabaki horretan ezarritako aldaketak, haiek jaso eta, hartara, HAPO berria idazteko.

Planeamendu berria indarrean jarri arte, oztupoak izanen dira lbarraren hirigintza planeatzeko, garatzeko, burutzeko eta gauzatzeko, Udalaren beraren eta Udaleko kontzejuen planeamendu-tresna desberdinak daudelako aldi berean.

Beste alde batetik, hirigintzako espedienteen kudeaketa, kontrola eta jarraipena erraztuko luketen kudeaketa-prozedurarik, datu-baserik eta artxibo zentralizaturik ez dagoela ikusi da. Horrez gainera, hirigintzako udal enpresek gauzatzen duten hirigintza-jarduerari dagokionez –etxebizitzak eta bestelako obra batzuk bultzatzea eta eraikitzea–, Udalaren hirigintzaren kudeaketarako eta barne kontrolerako organoek ez zuten behar bezalako jarraipenik egiten inbertsio horien garapen-prozesuaz.

Andacelay, S.L. hirigintza-sozietateko langile bakarra bertako gerentea da, 2012ko abenduan kontratatua.

Udalak udal inbentario bat egin dauka, bai eta Lurzoruaren Udal Ondarearen berariazko erregistro bat ere. Azken hori osatzen duten elementuen balioa 6,7 milioi eurokoa da 2013ko abenduaren 31n. Egindako azterketan, ikusi da biak gaurkotuta daudela eta, orokorrean, Udalak haien gaineko kontrol egokia duela.

VI.8. ANDACELAY, S.L. SOZIETATE PUBLIKOA.

Andacelay, S.L. sozietatearen 2013ko abenduaren 31ko urteko kontuak kanpoko kontu-ikuskatzaileek egindako auditoria finantzarioko txosten batean aztertu ziren, eta iritzia aldekoa izan zen. Sozietate horren egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua erantsi dugu.

Sozietateak gerente bat dauka 2012ko abendutik.

Sozietatearen ondare garbia 2013ko abenduaren 31n 3,8 milioi eurokoa da; 2012ko abenduaren 31n, berriz, 3,7 milioi eurokoa zen. 2013ko ekitaldiko emaitza 379.000 euroko etekina izan da; etekin hori funtsean etorri da 326.000 euroko plusbalio batetik –Gestión y Promoción Egüés 21 S.A. sozietatearen likidaziotik heldutakoa– bai eta diruzaintzako posizio altuetatik heldutako 197.000 euroko kopurutik ere. 2012an, emaitza 20.000 euroko galera izan zen.

Aktibo zirkulatzailearen "Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak" 2,7 milioi eurokoa izan da 2013ko abenduaren 31n; 2012ko abenduaren 31n, berriz, 2,4 milioi eurokoa izan zen. Gainera, 2013ko itxieran, balantzeak 492.000 euroko izakinak (ondasun higiezinak) islatzen ditu, zeinak heldu baitira aipatutako sozietatearen likidaziotik.

Sozietateko Administrazio Kontseiluko burua alkatea da, bazkideen 2012ko ekainaren 28an batzar orokorraren aktaren bidez izendatua.

VI.9. GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21 SA ETA GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21-II SL SOZIETATE MISTOAK**VI.9.1. Gestión y Promoción Egüés 21, S.A.**

Kontuen Ganberaren gomendioei jarraituz, eta ikusita sozietate horrek egindako sustapenetako higiezin ia guztiak saldu egin direla, 2013ko apirilaren 25ean, sozietatea likidatu zen. Likidazio horren ondorioz, Andacelay, S.L.k 326.000 euroko plusbalioa lortu du, eta 492.000 euroko balioa duten ondasun higiezin batzuk: likidatutako sozietateak saltzeko zeuzkan etxebizitza eta lokalak dira.

VI.9.2. Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L.

Txosten hau egiteko egunean, Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. sozietatearen 2012ko eta 2013ko abenduaren 31ko kontuak, zeinak III. gehigarrian informazio gisa eman baititugu, Administrazio Kontseiluak formulatu gabe daude. Sozietateak bere urteko kontuak auditatzeko aurkezten ditu, baina txostena eman gabe dago, kontuak behin betiko formulatu arte.

1,1 milioi euroko ondare garbia du, ekitaldiko emaitza 90.538 eurokoa izan du, epe luzerako 4.000.000 milioi euroko zorra du. Sozietate honek ez du langilerik.

2012ko abenduan, oraindik ere 49 etxebizitza eta zenbait lokal eta garaje libre zeuden saltzeko. Horrenbestez, sustatutako etxebizitza guztien ehuneko 65 salduta zegoen. 2013ko abenduaren 31n, 35 baizik ez ziren saltzeko gelditzen ziren etxebizitzak; txosten hau idazteko datan, berriz, 24 etxebizitza gelditzen dira saldu gabe.

2013ko ekainaren 14an, bazkide pribatua hartzekodunen borondatezko konkurtsoan deklaratu zen. Konkurtsoko administratzaileak epaitegiari emandako txostenarena arabera, 1,26 milioi onartu dira mendeko kreditutzat.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko abenduaren 29an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

I. GEHIGARRIA: ANDACELAY, S.L. SOZIJETATE MISTOAREN 2013ko EKITALDIARI DAGOZKION EGOERA-BALANTZE LABURTUA ETA GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU LABURTUA

2013ko egoera-balantze laburtua

Jardunean

	2012	2013
A. Aktibo ez-korrontea	154.581	2.822
II. Ibilgetu materiala	-	731
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	154.581	2.091
B. Aktibo korrontea	3.543.308	3.926.060
II. Izakinak	-	491.821
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	152.666	221.345
IV. Epe laburreko finantza-inbertsioak	1.033.983	475.282
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	2.356.659	2.737.612
Aktiboa, guztira	3.697.889	3.928.882

Ondare garbia eta pasiboa

	2012	2013
A. Ondare garbia	3.691.015	3.843.982
A.1 Funtz propioak	3.691.015	3.843.982
Kapitaleko diru-sarrerak	4.000	4.000
III. Erreserbak	3.712.399	3.486.399
V. Aurreko ekitaldietako emaitza	-5.350	-25.384
VII. Ekitaldiko emaitza	-20.034	378.967
C. Pasibo korrontea	6.874	84.900
III. Epe laburreko zorrak	4.900	-
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	1.974	84.900
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	3.697.889	3.928.882

2013ko galeren eta irabazien kontu laburtua

	2012	2013
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	5.072	4.039
6. Langile-gastuak	-6.016	-47.437
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-18.208	-12.592
8. Ibilgetuaren amortizazioa	-	-239
A) Ustiatzearen emaitza	-13.752	-56.229
14. Diru-sarrera finantzarioak	63.886	196.810
15. Finantza-gastuak	-	-8
16. Tresna finantzarioetako arrazoizko balioaren aldea	-70.168	-
18. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	-	329.474
B) Emaitza finantzarioa	-20.034	526.276
C) Zerga aurreko emaitzak	-20.034	470.047
17. Mozkinen gaineko zerga	-	-91.080
D) Ekitaldiko emaitza	-20.034	378.967

II. GEHIGARRIA: "GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21, S.A." SOZETATE MISTOAREN 2011ko EKITALDIARI DAGOZKION EGOERA-BALANTZE LABURTUA ETA GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU LABURTUA, 2013ko EKITALDIAN HASI ETA LIKIDATU ZEN ARTE

2013ko egoera-balantze laburtuaren zirriborria

Jardunean

	2012	2013-04-24
A. Aktibo ez-korrontea	0	-
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	0	-
B. Aktibo korrontea	1.179.733	1.045.986
II. Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak	971.855	937.915
II. Izakinak	0	-
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	24.488
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	207.878	83.583
Aktiboa, guztira	1.179.733	1.045.986

Ondare garbia eta pasiboa

	2012	2013-04-24
A. Ondare garbia	1.067.372	1.045.029
A.1 Funtz propioak	1.067.372	1.045.029
Kapitaleko diru-sarrerak	300.000	300.000
III. Erreserbak	740.306	740.306
V. Aurreko ekitaldietako emaitza	(36.379)	(121.509)
VII. Ekitaldiko emaitza	63.445	126.232
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	-
B. Pasibo ez-korrontea	0	-
II. Epe luzeko zorrak	0	-
C. Pasibo korrontea	112.361	957
III. Epe laburreko zorrak	112.361	-
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	0	957
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	1.179.733	1.045.986

2013ko galeren eta irabazien kontu laburtuaren zirriborria

	2012	2013
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	9.500	-
2. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldea	-5.887	-
3. Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak	0	-
4. Hornidurak	0	-
5. Bestelako ustiatzeengatikoko diru-sarrerak	0	-
6. Langile-gastuak	0	-
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-85.640	-
8. Ibilgetuaren amortizazioa	0	-
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen egozpena eta beste batzuk	0	-
10. Gehiegizko hornidurak	0	-
11. Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	-
13 Bestelako emaitzak	148.881	-
A) Ustiatzearen emaitza	66.854	-
14. Diru-sarrera finantzarioak	5	-
15. Finantza-gastuak	-1.360	-
16. Tresna finantzarioetako arrazoizko balioaren aldea	-2.054	-
17. Aldaketako aldea	0	-
18. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	-
B) Emaitza finantzarioa	-3.409	-
C) Zerga aurreko emaitzak	63.445	-
17. Mozkinen gaineko zerga	0	-
D) Ekitaldiko emaitza	63.445	-

III. GEHIGARRIA: “GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21-II, S.L.” SOZIETATE MISTOAREN 2013ko EKITALDIARI DAGOZKION EGOERA-BALANTZE LABURTUAREN ETA GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU LABURTUAREN ZIRRIBORROA

2013ko egoera-balantze laburtuaren zirriborria

Jardunean

	2012	2013
A. Aktibo ez-korrontea	361	361
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	361	361
B. Aktibo korrontea	7.914.407	5.186.606
II. Izakinak	6.052.671	4.304.855
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	144.883	19.198
IV. Epe laburreko finantza-inbertsioak	265.635	153.335
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	1.451.218	709.218
Aktiboa, guztira	7.914.768	5.186.967

Ondare garbia eta pasiboa

	2012	2013
A. Ondare garbia	1.281.393	1.100.828
A.1 Funtz propioak	1.281.393	1.100.828
Kapitaleko diru-sarrerak	3.100	3.100
III. Erreserbak	0	1.007.190
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak	(410.404)	-
VII. Ekitaldiko emaitza	1.688.697	90.538
B. Pasibo ez-korrontea	5.985.343	4.000.529
II. Kreditu-entitateekiko zorrak	5.985.343	4.000.529
C. Pasibo korrontea	648.032	85.610
III. Epe laburreko zorrak	-16.659	-
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	664.691	85.610
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	7.914.768	5.186.967

2013ko ekitaldiko galeren eta irabazien kontu laburtuaren zirriborria

	2012	2013
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	14.884.802	1.995.482
2. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldea	-5.605.699	-1.744.966
4. Hornidurak	-6.672.892	
5. Bestelako ustiatzeengatiko diru-sarrerak	240.154	240.154
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-173.495	-205.706
13 Bestelako emaitzak	70.136	149
A) Ustiatzearen emaitza	2.743.006	285.113
14. Diru-sarrera finantzarioak	110	3
15. Finantza-gastuak	-507.437	-194.578
B) Emaitza finantzarioa	-507.327	-194.575
C) Zerga aurreko emaitzak	2.235.679	90.538
17. Mozkinen gaineko zerga	-546.982	-
D) Ekitaldiko emaitza	1.688.697	90.538

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Eguesibarko Udaleko alkate Alfonso Etxebarria Goñi jaunak, Eguesibarko Udalaren 2013ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenaren proposamena, Kontuen Ganberak igorri diona, ikusita, azaldu eta zuzenbidearen arabera ondoen dagokion moduan, honakoa DIO:

Eguesibarko Udalari emandako epearen barruan, hari buruz honako alegazioak aurkeztu dituela.

ALEGAZIOAK

LEHENA.- VI.9.2. Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L.

Txosten hau egiteko egunean, Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. sozietatearen 2012ko eta 2013ko abenduaren 31ko kontuak, zeinak III. gehigarrian informazio gisa eman baititugu, Administrazio Kontseiluak formulatu gabe daude. Sozietateak bere urteko kontuak auditatzeko aurkezten ditu, baina txostena eman gabe dago, urteko kontuak behin betiko formulatu arte.

Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L.ren 2012ko eta 2013ko urteko kontuak oraindik ere formulatu gabe daude, arrazoi teknikoak tarteko. Arrazoi horiek konpondu nahi izan dira Nafarroako Foru Ogasunari eta ICACi aurkeztutako kontsulta lotesleen bitartez.

Eguesibarko Udaleko alkatea: Alfonso Etxebarria Goñi

EGUESIBARKO UDALAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN DIEN ERANTZUNA

Eguesibarko Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioa aztertuta, Nafarroako Kontuen Ganbera honek uste du aipatu dugun jarduketaren arrazoiak azaldu nahi izan dituela; hori dela eta, txosten honetan sartzea erabaki dugu, eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Halaber, jasota utzi nahi dugu ezen, alegazio horrekin batera, Foru Ogasunari eta Kontuen Kontabilitate eta Auditoria Institutuari (ICAC) aurkeztutako kontsulta lotesleen kopia helarazi digula. Halakoak, ordea, ez ditugu txostenean erantsi.

Iruñean, 2014ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

